


Gutuna. Ikasketa-bidaia Londresera

Egoera: Batxilergoko 1. mailako ikasle taldea zarete eta ikasketa-bidaia egin nahi duzue Londresera. Bidaia antolatzen hasi bezain laster, laguntza beharko duzuela konturatu zarete: atzerrira hegazkinaz joateko baimenak beharko dituzue, dirua biltzeko hainbat ekitaldi antolatu, Londresi buruzko informazioa jaso...

Horregatik, zuen **asmoen berri emateko** eta **laguntza eskatzeko, ikasketaburuari idaztea** pentsatu duzue.

- **Nork:** zeuk (gelako arduraduna zarelako).
- **Nori:** institutuko ikasketaburuari.
- **Zer:** azaldu ze asmo duzuen, adierazi zehatz zer behar duzuen eta bidaiaren antolakuntzan laguntzeko eskatu.
- **Nola:** posta elektronikoz.
- **Hitz kopurua:** gutxienez, **150** hitz.



Send Save Now Discard

To: anebadiolaarranondokoinstitutua@gmail.com

Subject: Ikasketa-bidaia

Ikasketaburu hori:

(Hemendik abiatuta, **150** hitz gutxienez)



IDAZLAN LABURRA /3

AUKERATUTAKO GAIA

Gutuna

150 hitz gutxienez

Aztertzaila- rentzat		Aztertzaila- rentzat
Desegokia	[Egun on, Lizarralde jauna:]	
Lex.	Batxilergoko 1. mailako ikasle taldearen ordezkaria naiz, eta guztion izenean idazten dizut. Aurten, ikasketa-bidaia Londresera egitea nahi dugu, eta dagoeneko, hasi gara zenbait gauza antolatzen. Baina, gauza anitz egin behar direnez bidaia prestatzeko, zuregana jotzen dugu laguntza eske.	Ad. Nom. Hitz ord.
Sint. Des.	Alde batetik, atzerrira hegazkinez joan ahal izateko gurasoen eta udalaren baimenak behar dira. Horretarako, eskertuko nizuke idazkaritzako norbaitek gestio horiek egiteko aukera edukiko bagenu. Beraien ezagutza ikasleona baino handiagoa baita.	Desegokia Punt.
Sint. Erd.	Beste aldetik, dirua biltzeko hainbat ekitaldi antolatzeko asmoa daukagu: kontzertuak, lehiaketa gastronomikoak, saskibaloia eta futbol partiduak etab. Horiek egin ahal izateko, eskolako berdegunea beharko genuke maiatza eta ekaineko azken asteburuetan.	Dek. Dek. Dek. Erg.
Des.	Azkenik, aldez aurretik Londres buruzko informazioa biltzea derrigorrezkoa dela uste dugu. Geografiako klasean, Londres gaineko proiektu bat egitea proposatzen dizugu, alde desberdinak gai desberdinak landuta. Beraz, horiek dira gure orain arteko beharrak. Edozein argibide nahi izanez gero, deitu lasai. Zure erantzunaren zain gelditzen naiz!	Punt.
Des.	Besterik gabe [agurtzen naiz.]	
	Miren Altuna 153 hitz	



Gutuna: Ikasketa-bidaia Londresera 3

Oharrak eta iruzkinak

<p><i>Laburra 3</i></p> <p>Kalifikazioa: 5</p> <p>+ : 1, 2, 3 - : 8, 9, 10, 11, 12, 16</p>	<p>*MUGAKOA!</p> <p>Edukia: Atazak eskatzen diona bete du, ozta-ozta. Informazio xumea eman du eta zenbaitetan jauzika antolatu du informazio hori. Juxtu-juxtu iristen da eskatutako hitz kopurura.</p> <p>Moldea: Informazioa nahiko ondo antolatu du paragrafotan, baina ideien arteko loturak oso xumeak dira. Baliabide sintaktiko oso mugatuak ditu eta horrek nabarmen eragiten du ideien garapenean. Hasierako agurra eta bukaerakoa desegokiak dira; are gehiago, sarrerakoa eman egin zaie, baina ez du erabili.</p> <p>Zuzentasuna: Gramatika akats asko. Deklinabidean eta sintaxia edo joskera mailan oinarritzko egituretan egin du huts.</p> <p>OHARRA: Azterketariak EZ du C1 maila erakutsi, eta ez da egokia ikusten konpentsazio bidez gainditura eramatea.</p>
---	---